BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

3812

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 22koa, Etxebizitza eta Arkitekturako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinuaren eta arkitektura garaikidearen sustapenerako eta hedapenerako 2019. ekitaldirako dirulaguntzetarako deialdiaren ebazpena.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko azaroaren 28ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinuaren eta arkitektura garaikidearen sustapenerako eta hedapenerako dirulaguntzak arautzen eta deitzen dira 2019. ekitaldirako. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da, 2018ko abenduaren 10ean.

Deialdi horretan, honako lerro hauekin bat egiten duten jarduerak jotzen dira diruz laguntzeko modukotzat:

– I. lerroa: Euskadiko hirigintza-diseinuaren eta arkitektura garaikidearen gaineko aldi baterako dibulgazio-erakusketak.

– II. lerroa: Euskadiko hirigintza-diseinuari eta arkitektura garaikideari buruzko jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, lantegiak eta workshop-ak.

– III. lerroa: Argitalpenak, dokumentalak eta tresna informatikoak.

Etxebizitzako sailburuordearen 2019ko otsailaren 28ko zenbait ebazpenen bidez, 2018ko azaroaren 28ko Aginduan aurreikusten den lerro bakoitzari dagokion deialdia ebatzi zen.

Dagozkion ebazpenak interesdunei jakinarazi ondoren, deialdi horretan atzera egin duten entitateen zerrenda, emandako laguntzen onuradunen zerrenda eta dirulaguntza-eskaera ukatu izan direnen zerrenda argitaratu behar da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Organo honi dagokio ebazpen hau emateko eskumena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko azaroaren 28ko Aginduaren arabera. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinuaren eta arkitektura garaikidearen sustapenerako eta hedapenerako dirulaguntzak arautzen eta deitzen dira, 2019. ekitaldirako.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko azaroaren 28ko Agindua eta oro har aplikagarri den araudia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Argitara ematea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren 2018ko azaroaren 28ko Aginduaren babesean atzera egin duten entitateen zerrenda, onuradunak izan diren entitateen zerrenda eta dirulaguntza-eskaera ukatu egin zaien entitateen zerrenda, guztiek horren berri izan dezaten. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinuaren eta arkitektura garaikidearen sustapenerako eta hedapenerako dirulaguntzak arautzen eta deitzen dira, 2019. ekitaldirako.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 22a.

Etxebizitza eta Arkitekturako zuzendaria,
PABLO GARCIA ASTRAIN.

I. ERANSKINA

Atzera egin duten entitateen zerrenda.

Eskatzailea	Proiektua	Dirulaguntza-lerroa
Asociación Cluster del Habitat, Oficina y Contract del País Vasco	«Hackathon Mugak»	II. lerroa

II. ERANSKINA

Diruz lagundutako proiektuen zerrenda.

I. lerroa. Euskadiko hirigintza-diseinuaren eta arkitektura garaikidearen gaineko aldi baterako dibulgazio-erakusketak.

Eskatzailea	Proiektua	Onartutako aurrekontua	Onartutako dirulaguntza
Asociación Cultural Archivo Luis Peña Ganchegui	«Hiru Eliza Arquitectura sacra revisionista en Vitoria-Gasteiz»	41.300,00 €	41.300,00 €
Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala	Erakusketa elkareragilea: «Evolución y Futuro de la Vivienda»	85.000,00 €	56.000,00 €
Atari Asociación Cultu. Arquitect. Euskadi	Erakusketa: «#Nakagin Capsule San Sebastián»	61.480,00 €	61.480,00 €
Eraikune Asoc Cluster de la Construcion de Euskadi	«Zorrozaurre de la ribera a la isla»	6.500,00 €	6.500,00 €

II. lerroa: Euskadiko hirigintza-diseinuari eta arkitektura garaikideari buruzko jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, lantegiak eta workshopak.

Eskatzailea	Proiektua	Onartutako aurrekontua	Onartutako dirulaguntza
Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala	«Jornadas Ciudad y Paisaje: Propuestas Integradoras»	28.640,00 €	16.000,00 €
Asociación Cluster del Habitat, Oficina y Contract del Pais Vasco	«Mujeres transformando los límites de la arquitectura y el diseño vasco»	13.643,10 €	13.643,10 €
Maushaus elkartea	Haurrentzako tailerrak	1.900,00 €	1.900,00 €
Asoc Open Urbanity para la divulgación e investigación avanzada	Azpiegiturak Barne	24.918,00 €	10.000,00 €
Atari Asociación Cultu. Arquitect. Euskadi	«Jornadas: Bauhaus 1919-2019 Proyecto moderno e integración de las artes»	9.200,00 €	9.200,00 €
Eraikune Asoc Cluster de la Construción de Euskadi	«Zorrozaurre de la ribera a la isla»	13.818,00 €	13.818,00 €

III. lerroa: Argitalpenak, dokumentalak eta tresna informatikoak.

Eskatzailea	Proiektua	Onartutako aurrekontua	Onartutako dirulaguntza
Urbanbat Herri-berrikuntza bulegoa, Koop txikia	Urbanbat 2019 bideoa	29.270,00 €	19.910,00 €

III. ERANSKINA

Ukatutako dirulaguntza-eskaeren zerrenda.

Dirulaguntza-lerroa	Eskatzailea	Proiektua	Ukatzeko arrazoia	2018ko azaroaren 28ko Agindua
I. lerroa	Isuuru arquitectos, S.L.	«El observatorio móvil.»	Eskatzailea Sozietate Mugatu bat da eta ez ditu betetzen onuradun izateko baldintzak.	4. artikulua
I. lerroa	Asociación Línea Curva	Hub Island	Ez da iristen gutxieneko 50 puntutara.	10.2 artikulua
III. lerroa	Asociación Cultural Archivo Luis Peña Ganchegui	«Imanolena. Un refugio frente al Cantábrico»	Ez da iristen gutxieneko 50 puntutara.	10.2 artikulua
III. lerroa	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala	Collage Haundia Arquitectura del Gran Bilbao	Ez da iristen gutxieneko 50 puntutara.	10.2 artikulua